

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

### 1789

*EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzen 2026ko ekitaldirako deialdiaren oinarriak.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio Kontseiluak, 2026ko apirilaren 22ko bilkuran, erabaki zuen langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak EAeko lantokietan kontratatzeko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak onartzea, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutako estatutuen 11.j) artikulua araberera.

Estatutu horien 14.2.n) artikuluan xedatutakoaren araberera, zuzenbide pribatuko ente publiko horren zuzendari nagusiari dagokio oinarriak argitaratu daitezkeen agintzea.

Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2026ko apirilaren 22ko Erabakia argitaratzea. Erabaki horren bidez, langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak EAeko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzen 2026ko ekitaldirako deialdiaren oinarriak onartzen dira, zeinak erabaki honen eranskinean jasota baitaude.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio Kontseiluaren erabaki honen ondorioak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko direla.

Hirugarrena.– Aditzera ematea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio Kontseiluaren erabaki honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 22a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,  
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

## ERANSKINA

LANGABEZIAN DAUDEN 50 URTETIK GORAKO PERTSONAK EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO LANTOKIETAN KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZEN 2026KO  
EKITALDIRAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, langabezia-tasak behera egin du azken urteetan: % 7,0koa izan da 2024ko laugarren hiruhilekoan, eta % 6,8koa 2025eko hirugarren hiruhilekoan, EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestaren datuen arabera

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan 2025eko urrian langabeziari buruz erregistratutako datuen arabera, langabeen % 43,90 50 urtetik gorakoak dira. Bi adin-multzo bereiz daitezke talde horretan: 50 urtetik 54 urtera artekoak % 27,64 dira, eta 55 urtetik gorakoak, berriz, % 72,36. Hau da, adina lan-arloko bazterketaren faktoreetako bat da; berak bakarrik ez du langabeziaren kronifikazioa azaltzen, baina zenbat eta altuagoa izan adina, orduan eta handiagoa da langabeen ehunekoa. Genero-desberdintasunak ere esanguratsuak dira 50 urtetik gorako langabeen artean; izan ere, 50 urtetik gorako langabeen % 57,42 emakumeak dira, eta % 42,58, berriz, gizonak.

2030eko Euskal Enplegu Estrategia eguneratua –15/2023 Legea egokitzeko egina–, lehen-tasuntzat jotzen da kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea, eta azpimarratzen da ezen pertsona guztiek lanaren bidez ekarpenak egiteko duten potentziala erabat aprobetxatu behar dela. Esparru horretan, estrategiak nabarmentzen du garrantzitsua dela adinkerari aurre egitea eta antolakundeetan adinaren kudeaketa sustatzea, talentua galtzea eragozteko eta belaunaldi-errelebo egokia bermatzeko.

Era berean, estrategian ezartzen da Lanbide funtsezko zeregina izaten jarraitu behar duela prozesu horietan, eta laguntza eta babes espezifikoak eman behar diela 50 urtetik gorakoei, zeren eta, askotan, enplegua lortzeko zailtasunak izaten baitituzte adina dela eta; horrenbestez, adin haien birziklatzea bultzatu behar da, eta lanaren bidez ekarpenak egiteko duten potentziala erabat aprobetxatu.

Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak, 2023ko apirilaren 19ko bileran, zera erabaki zuen, besteak beste: berariazko lantalde bat sortzea, erronka demografikoak enpleguaren eta lan-harremenen ikuspegitik duen eragina aztertzeke eta 45 edo 50 urtetik gorako langileen okupazio-tasak handitzeko programak eta ekintzak bultzatzeko.

Esparru programatiko horrekin bat etorritik, eta kontuan hartuta enpresa eta agente enplegatzaileek zer-nolako onarpena eman izan dioten aurreko edizioetan dirulaguntza-lerro honi, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legeak esleitutako eginkizunak betez, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzeke dirulaguntza-programa hau sustatu du 2026. ekitaldirako.

Deialdi honetako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2026ko ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita. Plan hori Jaurilaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2026ko urtarrilaren 14ko Aginduaren bidez onartu zen, zeinak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2026-2029 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu baitzuen, hala agintzen baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 eta 7.1 artikuluetan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan. Deialdia 3.4 gako estrategikoan sartzen da: «Interbenzio-ereduak neurrira egiten dituen Euskal Enplegu Sistema eta enpresen eta pertsonen beharrei erantzun azkarra ematen diena, langabeziaren kronifikazioa ekiditeko».

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak proposatuta, zuzenbide pribatuko ente publiko honetako Administrazio Kontseiluak, 2026ko apirilaren 22an egindako bilkuran, langabezian dauden 50 urtetik goragoko pertsonak EAEko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzen 2026ko ekitaldirako deialdiaren oinarri hauek onartu ditu:

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak EAEko lantokietan kontratatzeko dirulaguntzak ematea, EAEko lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurri gisa.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa.

1.– Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak finantzatzeko, 2.500.000 euro bideratu dira. Horietatik, 1.250.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuaren 2026ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.250.000 euro, 2027ko konpromiso-kredituari.

2.– Deialdi honen babesean diruz lagundutako lan-kontratuek Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa izan dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.

3.– Guztira emango diren dirulaguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratzetik ateratzen dena, baldin eta indarrean dagoen legeriarekin bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eta, hala bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman beharko da horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jarduketak.

1.– Deialdi honen babesean, kontratu mugagabeak eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak lagundu ahal izango dira diruz, baldin eta 5. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonekin Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan lanpostuak betetzeko badira.

Diruz lagundu ahal izateko, aldi baterako kontratuek gutxienez 6 hilabeteko iraupena izan behar dute, eta kontratu mugagabeek, berriz, gutxienez 12 hilabetekoa.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatutako eta hasitako lan-kontratuei aplikatuko zaizkie, betiere deialdian ezarritako baldintza eta betekizunetara egokitzen badira.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da aldi baterako kontratuatarako, eta 12 hilabetekoa, berriz, iraupen mugagabeko kontratuatarako; nolahi ere, 2027ko urriaren 31n bukatuko da epe hori.

2.– Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen kontratuak lan-arloko legeriak ezartzen duen edozein kontratu-modalitatearen arabera formalizatu daitezke, betiere deialdi honetan ezarritako gutxienezko iraupena duten aldi baterako kontratuak edo kontratu mugagabeak badira. Finantzaketatik kanpo geratuko dira ikas-ekinezko heziketa-kontratuak, aldizkako kontratu finkoak, aldi baterako laneko enpresek langileekin enpresa erabiltzaile bati lagatzeko egindako kontratuak, eta etxeko zerbitzuaren araubidean egindako kontratuak. Diruz laguntzeko moduko kontratuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Kontratazioak izan beharko du kontratatu behar den pertsonaren profil profesionalaren arabera egokia den lanpostu baterako; hau da, ikasketa- edo prestakuntza-maila edo lanbide-esperientziarako egokiak direnak, baldin eta prestakuntza hori ezinbestekoa bada bete beharreko lanposturako.

b) Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eredu ofiziala erabilia, eta berariaz jaso beharko dituzte honako hauek: langilearen prestakuntza edo kualifikazio profesionala, kontratuaren hasiera-data eta, hala badagokio, amaiera-data, kontratuaren iraupena, lanaldia eta bete beharreko lanpostua.

c) Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke, baina, azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.

d) Eskieran, urteko ordainsari gordinaren zenbatekoa adierazi beharko da kontratu mugagabeen kasuan, eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten kontratuetan, berriz, hileko ordainsari gordina.

Deialdian eskatzen den gutxieneko soldata-ordainsari gordina zehazteko, oinarrizko soldata, aparteko ordainsariak eta soldata-osagarriak baino ez dira kontuan hartuko, eta berariaz geratuko dira zenbaketatik kanpo soldataz kanpoko bestelako ordainsari eta osagarriak.

Kontratuak dirulaguntza jaso ahal izateko, lanaldi osoko urteko soldata-ordainsari gordina ez da, ezein kasutan, taula honetan azaltzen diren zenbatekoak baino txikiagoa izango:

Titulazio akademikoa	Urteko gutxieneko soldata-ordainsari gordina (euro)
Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra (Bologna plana), Unibertsitate Diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Unibertsitate Gradua (Bologna plana)	31.500,00
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	27.600,00
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	18.700,00
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez	Indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata

3.– Halaber, kontratazioek enplegua sortzea eragin beharko dute, diruz lagunduko diren kontratuak xede diren langileak lanean hasi aurre-aurreko 6 hilabeteetan enpresa edo entitate onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen lantokietako batez besteko langile-kopuruarekin alderatuta. Kontratu berriaren ondorioz, esandako batezbestekoak gora egin beharko du kontratazio-egunean.

Baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko bidegabekotasun edo deuseztatze jo ez diren kausa objektiboengatik edo kaleratzeengatik azkendutako kontratuak, langileen erretiro, dimisio, heriotza, ezintasun iraunkor oso, absolutu edo baliaezintasun handiagatik azkendu diren kontratuak, ezta langileak hasiera batean hitzartutako lan-denbora borondatez murriztutako kontratuak ere.

4.– Ez dira diruz lagunduko:

a) Enpresaburuaren edo enpresa edo entitate onuradunaren kontrola duen inoren, zuzendaritza-karguetan ari direnen edo enpresen administrazio-organoetako kide direnen ezkontideari, izatezko bikotekideari edo bizikideari edo bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten ondorengo eta gainerako senideei egindako kontratuak, haien forma juridikoa edozein dela ere. Era berean, ez da dirulaguntzarik emango enpresa edo entitate onuradunaren kontrola dutenak, zuzendaritza-karguak dituztenak edo enpresetako administrazio-organoetako kideak kontratatzeke, haien forma juridikoa edozein dela ere.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren edozein deialditan diruz lagundu daitezkeen jardueri lotuta formaliza daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan direnak.

c) Enpresa edo entitate onuradun berarekin lan-harreman mugagabea bukatu duten pertsonen kontratazioak.

d) Enpresa edo entitate onuradun kontratatzailearekin aurretik iraupen mugatuko edo aldi baterako lan-harremana izan duten pertsonen kontratazioa, lan-harreman hori dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan izan bada.

e) Diruz laguntzeko eskatu den kontratazioa egin aurreko 3 hilabeteetan, lan-harreman bat beren borondatez amaitu duten pertsoneri egindako kontratuak.

4. artikulua.– Enpresa edo entitate onuradunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira deialdian ezarritako baldintzetan lan-kontratuak egiten dituzten enpresak edo entitateak, edozein dela ere haien forma juridikoa, honako hauek izan ezik: administrazio publikoak eta organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateak. Onuradunek betekizun eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Egoitza soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.

b) Enpresako langileen legezko ordezkariari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoaren berri eman izana, kontratu-mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko postua adierazita. Enpresak LLOrik ez badu, berariaz adierazi beharko du eskaeran.

c) Kondenaturik ez egotea delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

d) Kondenatua edo zehatua ez egotea epai edo administrazio-ebazpen irmo batez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduz, edo, hala izan bada, igarota edukitzea kondena- edo zehapen-epea.

e) Konkurtso boluntarioaren deklarazioa eskatu ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez izana, konkurtsoan deklaraturik ez egotea, salbu eta horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada, esku-hartze judizialaren mende ez egotea, edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, edo, desgaituta egonez gero, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia bukatuta egotea.

f) Kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik, Administrazioarekin egindako ezein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin ez izana.

g) Merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak bateraezintasun-egoera hauetakoren batean ez egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat betetzea, arau horretan edo adierazitako gaiak arautzen dituen araudi autonomikoan agindutakoaren arabera.

h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, Ekonomia eta Ogasu-neko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

i) Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen diren, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Nolanahi

ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke aurka egiaztatze-lan horri, eta, halakorik egiten badu, ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu betekizun hori betetzen duela frogatzeko.

j) Ez izatea egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

k) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak egunean izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburauren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

l) Zehapen administratibo edo penalik jaso ez izana sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik –zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa–, edo zehapen-epea igaro izana.

m) Ez edukitzea laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausarik, hauek barne:

– Ez izatea berdintasun-planik indarrean, estatu-araudiaren arabera horretara behartuta dagoen enpresa izanik.

– Ez edukitzea ezarrita neurriak sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak dauzkan legeek ezarritakoaren arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGTBIfobia egitea, bultzatzea edo sustatzea, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

n) Administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez zehatua ez izatea, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, edo, hala izan bada ere, ezarrita izatea beharrezko neurri zuzentzaileak eta ordainduta izatea dagokion zehapena.

ñ) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota betetzea edo, bestela, hori betetzeko neurri alternatiboak hartzea.

o) Elkarteen kasuan, elkarte ez egotea Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 4. artikuluan 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean.

p) Legez kontrako egintza penalen arrazoizko zantzuak aurkitu zaizkiola-eta inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarte bat ez izatea, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, erregistroan inskribatzeko aukera ematen dion ebazpen judizial irmorik ez dagoen bitartean.

q) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea irabazi-asmoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa bada, zuzenbide publikoko entitate ez dena, betetzea Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.3 bis artikuluan aurreikusitako moduan.

Eskakizun hori betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila Enpresak Sortu eta Handitzeko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarreneko d) letrako bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren parekoa edo handiagoa

denean (aurreko ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa guztietatik ordaindutako fakturen % 90, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako gehieneko epea igaro baino lehen).

r) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritako eran.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ez badu egiaztatzen 1. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da. Adierazpen hori eskabide-orrian dago. Dokumentazio hau aurkeztuta egiaztatuko da q) apartatuko eskakizuna:

– Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkezteko modurik badu, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko a) letran aipatutako ziurtagiria aurkeztu beharko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako eredia erabiliz.

Ziurtagiri hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

– Eskatzaileak ezin badu, kontabilitate-araudiaren arabera, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko b) letran adierazitako dokumentazioa aurkeztuko du, hau da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek emandako ziurtagiria –aipatutako letrako 1. zenbakian eskatutako edukiarekin–; ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada, prozedura adostuen txostena aurkeztuko du –aipatutako letrako 2. zenbakian eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelamenduaren 22 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan–.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, hala badagokio, dirulaguntzak emateko ebazpenak eman aurretik eskatuko die entitate eskatzaileei aurreko paragrafoan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko.

5. artikulua.– Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonak bete beharreko baldintzak.

Deialdi honen bidez, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak kontratatuko dira:

a) 50 urte edo gehiago izatea.

b) Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo dagokion Estatuko enplegu-zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta altan egotea, kontratua hasteko egunaren aurreko egunean. Ondorio horietarako, langabetzat joko dira Gizarte Segurantzako ezein erregimenetan alta emanda ez dauden pertsonak.

c) Kontratuko lanpostua betetzeko profil profesional egokia edukitzea.

6. artikulua.– Kontratutako diren pertsonen hautaketa.

1.– Kontratutako diren pertsonak prozedura hauetako baten bidez hautatuko dira:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez.

Hautaketa-mota honetarako, eskaintza kudeatzeko eskaera bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostu-profil bakoitzeko. Eskaera hori horretarako ezarritako inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, eta, gutxienez, datu hauek adierazi beharko dira: izen-abizenak edo enpresa edo entitate onuradunaren izen soziala, IFZ, enplegatzailearen kotizazio-kontuaren kodea (halakorik bada), lantokiaren udalerrria, lanpostuaren izena eta langintza, lanpostuen kopurua, lanpostuaren deskribapena eta enpresaburuaren, legezko ordezkariaren edo pertsona baimenduaren sinadura.

Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza hura jasotzen duen bulegoak erregistratuko du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geratuko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresa edo entitate onuradunari haren erreferentzia jakinaraziko zaio.

Eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako prozeduren arabera kudeatuko dira. Enpresetara bidaliko dira Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden hautagai langabeak, eskatutako profil profesionala eta baldintzak betetzen dituztenak, egingo zaien kontratua deialdi honen babesean diruz lagundu ahal izateko.

Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresa edo entitate onuradunak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

b) Enpresa edo entitate onuradunaren bidez, zuzenean, Lanbideri enplegu-eskaintza kudeatzeko eskaerarik egin gabe.

Kontratutako den pertsonak Lanbideren edo dagokion enplegu-zerbitzu publikoaren «inskripzio-ziurtagiri» bat eskuratu ahal izango du bitarteko telematikoen bidez edo enplegu-bulegoetan, kontratua hasi aurreko egunean enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena.

Ziurtagiri horrek ez du eskatzailearen lan-egoera egiaztatzen. Kontratutako pertsonak izaera hori egiaztatu ahal izango dio enpresa edo entitate onuradunari, Gizarte Segurantzaren data jakin batean duen egoerari buruzko txostenaren bidez; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina izango da txosten hori.

2.– Egiten den hautaketa-prozesua dena delakoa izanda ere, kontratatuko diren pertsonak beren enplegu-eskaera alta-egoeran eduki behar dute kontratuaren hasiera-datara arte.

7. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Kontratu bakoitzeko diruz lagunduko den zenbatekoa zehazteko, dirulaguntzaren xede den lanpostua betetzeko behar diren titulazio akademikoak edo ikasketak eta kontratuaren iraupena hartuko dira kontuan, taula honekin bat etorriz:

Titulazio akademikoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)	
	6 hilabeteko edo gehiagoko kontratua	Kontratu mugagabea
Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra (Bologna plana), Unibertsitate Diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Unibertsitate Gradua (Bologna plana)	4.725,00	15.750,00
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.140,00	13.800,00
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.150,00	10.500,00
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez	2.500,00	8.300,00

2.– Aipatutako dirulaguntza-zenbateko guztiak % 15 handituko dira, kontratatutako pertsonak ezaugarri hauetako bat gutxienez badu: 55 urte edo gehiago izatea edo emakumea izatea.

3.– Halaber, aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoak % 10 handituko dira, baldintza hauek betetzen badira: kontratatutako pertsonak kontratatzeko konpromisoa berekin dakarren preskakuntza-ekintzaren bat bukatu badu 2025. edo 2026. urtean eta ekintza hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak diruz lagundu badu Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren babesean; formalizatzen den kontratua mugagabea bada, eta lanaldia, gutxienez, ezarritako lanaldiaren % 70ekoa bada.

4.– Kontratutako pertsonak aurreko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen baditu, dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 handituko da.

2026ko apirilaren 30a, osteguna

Taula hauetan ageri dira dirulaguntzen zenbatekoak, bai eta dirulaguntza-ehuneko gehigarriak ere:

Titulazio akademikoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 15 gehiago, kontratatutako pertsonak ezaugarri hauetako bat gutxienez badu: emakumea izatea edo 55 urte edo gehiago izatea; 7.2 artikulua) (euro)	
	6 hilabeteko edo gehiagoko kontratua	Kontratu mugagabea
Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra (Bologna plana), Unibertsitate Diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Unibertsitate Gradua (Bologna plana)	5.435,00	18.115,00
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.760,00	15.870,00
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.620,00	12.075,00
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez	2.875,00	9.545,00

Titulazio akademikoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 10 gehiago, kontratatutako pertsonak, 2025ean edo 2026an, kontratatuzeko konpromisoa dakarren ikastaro bat bukatu badu eta kontratuak 7.3 artikuluko baldintzak betetzen baditu) (euro)	
	Kontratu mugagabea	
Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra (Bologna plana), Unibertsitate Diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Unibertsitate Gradua (Bologna plana)	17.325,00	
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	15.180,00	
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	11.550,00	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez	9.130,00	

Titulazio akademikoa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 20 gehiago, kontratatutako pertsonak deialdiko 7.2 eta 7.3 apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen baditu) (euro)	
	Kontratu mugagabea	
Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra (Bologna plana), Unibertsitate Diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Unibertsitate Gradua (Bologna plana)	18.900,00	
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	16.560,00	
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	12.600,00	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez	9.960,00	

5.– Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Lanaldi partzialko kontratuetan, zenbatekoak lanaldiaren proportzioan doituko dira.

8. artikulua.– Eskaerak aurkezteko modua, epeak, eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Dirulaguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>. Horra iristeko, esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (hor daude jasota izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak) helbide honetan dago: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1234603>. Fitxa horren bitartez eskuratu daiteke eskaera egiteko inprimakia.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Izapidetze elektronikoa ordezkarri baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– 50 urte edo gehiagoko pertsonak kontratatze dirulaguntzetarako eskabidearen inprimiarekin batera, enpresa edo entitate onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea pertsona juridiko eskatzailearen izenean sinatzen duen pertsonaren legezko ordezkaritzaren egiaztagiria, baldin eta ordezkaritza hori ez badago inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren ordezkarrien erregistroan.

b) Egindako kontratuaren edo kontratuen kopia.

c) Eskabidea langile autonomo batek egiten badu, jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan emanda dagoela egiaztatze dokumentazioa.

d) Bi txosten, «Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» izenekoak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabeteko aldiari dagokiona, eta bestea, kontratazio-egunari dagokiona.

Bi txosten horiek alderatuta, ikusten bada plantilla ez dela handitu, 3.3 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, dokumentazioa aurkeztu beharko da egiaztatze ezen aurreko sei hilabeteetan kontratuak azkendu direla, bidegabetzat edo deuseztat jo ez diren kausa objektiboengatik edo kaleratzeengatik edo langileen erretiro, dimisio, heriotza, ezintasun iraunkor oso, absolutu edo baliaezintasun handiagatik; halaber, langileek hasieran itundutako lan-denbora borondatez murriztu izana egiaztatze dokumentuak aurkeztuko dira.

3.– Eskaerak ez baditu betetzen oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak, edo osatu gabe badago edo akatsak baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean okerra konpon dezala edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzala; eta adieraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta, horretarako, aurretiaz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren zuzendariak ebazpena emango du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4.– Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko irailaren 30ean amaituko (egun hori barne).

9. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, emate-prozedurak eta ebazpena.

1.– Prozedura kudeatzeko eta izapidetzeko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Enpresen eta Ekintzaitzaren zuzendaria izango da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria.

2.– Deialdi honetako dirulaguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez izapidetuko dira. Horrela, aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta ordenan ebatziko dira, dagokion espedientea osatzen den unearen arabera, harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte. Aurrekontu-zuzkidura bukatzen denean, geratzen diren eskabideei ukatu egingo zaie dirulaguntza, eta horren berri argitaratuko da EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpen baten bidez. Era berean, [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) webgunean ere argitaratuko da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du kontratatutako pertsonak inskripzioaren, altaren eta langabezia-egoeraren inguruko baldintza betetzen duen.

Enpresen eta Ekintzaitzaren Zuzendaritzak, eskaera bakoitza izapidetu ondoren, ebazpen-proposamena eta administrazio-espedientea aurkeztuko dizkio zuzendari nagusiari, hark egokitzat jotzen duena ebatz dezan.

3.– Eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpen espresu baten bidez onartu edo ukatuko dira.

50 urteko edo gehiagoko langabeak kontratatzeagatik dirulaguntzak emateko ebazpenean datu hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa eta dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

Ebazpenean berriaz aipatuko da Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatu dela dirulaguntza, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, eta emandako dirulaguntza «de minimis» erakoa dela.

Dirulaguntza ukatzen duen ebazpena ematen bada, arrazoiak azaldu beharko dira, hau da, berriaz adierazi beharko da zergatik ezetsi den eskaera.

4.– Ebazpenak eman eta jakinarazteko, gehienez sei hilabeteko epea egongo da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera, eta epe hori bukatu eta ebazpen espresurik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsizat joko da.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, Lanbideko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpenaz honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean dirulaguntza zer enpresak edo entitatek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein enpresa edo entitateri emandako dirulaguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, ebazpena berriaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

#### 10. artikulua.– Kontratua azkentzea.

1.– Kontratuen gutxieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da aldi baterako kontratuen kasuan, eta 12 hilabetekoa kontratu mugagabeen kasuan, 3. artikuluan ezartzen den bezala.

2.– Lan-kontratua azkentzen bada artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako aldi, kontratuan adierazitako probaldia ez gainditzeagatik, borondatezko uzteagatik, bidegabetzat edo deuseztat jo ez diren arrazoi objektiboengatik edo kaleratzeagatik, kontratatutako pertsonaren erretiroagatik, heriotzagatik, ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, enpresa edo entitate onuradunak idatziz jakinarazi beharko dio inguruabar hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

Komunikazio hori kontratua azkendu eta hilabeteko gehieneko epean egin beharko da, kontrataziorako dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa kontratatutako pertsonak lan egindako aldiaren zati proportzionalera doitzeko.

Doikuntza proportzional hori egiteko, artikuluko honetako 1. apartatuan ezarritako aldia eta kontratuaren bukaera-data hartuko dira kontuan.

3.– Artikulu honetako 2. apartatuan ezarritako aldi lan-harremana azkentzen bada apartatu horretan aurreikusi ez den beste kausaren batengatik, kontrataziorako emandako dirulaguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honetako 17. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

4.– Enpresa edo entitate onuradunak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi izanez gero, beste dirulaguntza-eskabide bat aurkeztu beharko du nahitaez, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera, eta betiere adierazitako epeetan baldin badago.

#### 11. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak honela ordainduko zaizkie enpresa edo entitate onuradun kontratatzaileei:

a) Lehenengo ordainketaren bidez, dirulaguntzaren % 50 ordainduko zaie, behin dirulaguntza emanda, 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren kontura.

Ordainketa egin baino lehen, Lanbidek egiaztatuko du langilea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda dagoela eta enpresako plantilla handitu egin dela.

b) Bigarren ordainketaren bidez, gainerako % 50a edo dagokion zenbatekoa ordainduko zaie, finantzaketa eskatzen den lan-kontratuari eutsi zaiola egiaztatu ondoren, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera; 2026ko ekitaldiko ordainketa-kredituaren kontura edo 2027ko konpromiso-kredituaren kontura ordainduko da kopuru hori.

2.– Emandako dirulaguntza entitate onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko da.

Entitateak ez badu Lanbideren ordainketarik jaso edo banku-datuak aldatu nahi baditu, hirugarrenen altaren agiria bete beharko du, zeina Lanbideren web-orrian baitago eskuragarri.

3.– Ordainketa bakoitza egiteko unean, entitate onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak ere, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

#### 12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Kontratuak justifikatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ofizios egiaztatuko du aldi baterako kontratuen benetako iraunaldia, bai eta kontratu mugagabeek gutxienez 12 hilabete

iraun dutela ere, horren ostean bigarren ordainketa egiteko. Halaber, deialdiko 13. artikuluan adierazitakoa betetzen dela egiaztatuko du.

2.– Azkenean, enpresa edo entitate onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik –deialdiaren 10.1 artikuluan jasotzen dira arrazoi horiek– kontratuaren iraupena xedatutakoa baino laburragoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa ere gutxitu egingo da, proportzioan.

13. artikulua.– Enpresa edo entitate onuradunen betebeharrak.

1.– Entitate onuradunaren betebeharrak izango dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Hasieran hitzartutako iraupena bete baino lehenago azkentzen diren kontratuen berri ematea, eta arrazoia jakinaraztea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari justifikatzea betetzen direla dirulaguntza emateko edo erabiltzeko eskakizunak eta baldintzak.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan jardutea diruz lagundutako jarduera egiaztatzeko, ikuskatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko –ofizioz edo alderdi batek eskatuta–, eta honako hauen egiaztatze-jarduketari baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa; Ogasun eta Finantza Saileko Politika Ekonomikoaren eta Europako Kohesioaren Zuzendaritza; Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa; Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-istantziak.

Horretarako, entitate onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta kontrol ekonomikoko eta fiskalizazioko organoen esku jarriko ditu (Europako Gizarte Funtsen esku barne, hala badagokio) diruz lagundutako jarduketari buruzko agiriak, bost urteko epean, kudeaketa-agintaritzak onuradunari azken ordainketa egiten dion urteko abenduaren 31tik aurrera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren 82.1 artikulua araberak.

d) Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo ente publiko nahiz pribatutatik dirulaguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmen eragiten dion edozein gorabehera ere.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

g) Laguntza horiek jakinarazteko material eta ekintza guztietan aipatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren finantzaketa, eta, gainera, halakorik balego, Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.

h) Emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren arloko betebeharrak:

– Lanpostuetarako probak edo elkarrizketak eta hautaketa egitean emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea.

– Dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin behar da, emakumeen kontrako diskriminazioa edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rolen eta -identitateen pluraltasuna sustatzen dutenak.

18. artikuluan aipatzen den datu pertsonalen babesari buruzko informazioa helarazi beharko diete enpresa edo entitate onuradunek kontratatutako langileei.

2.– Bermatu egin beharko da diruz lagun daitezkeen ekintzak gauzatzerakoan egindako gastuak ikustea ahalbidetuko duen auditoretza nahikoa dagoela, horrela diruz lagun daitezkeen gastuak Europako Gizarte Funtsaren hautagarritasun-eskakizunak betetzen dituztela bermatzeko. Horretarako, honako hauetara behartuta egongo dira entitate onuradunak:

a) Bereizitako kontabilitate bat erabiliz edo kontabilitateko kodeketa egoki eta bereizia erabiliz erregistratzea dirulaguntza honen eraginpeko mugimendu guztiak. Europako Gizarte Funtsak finantzaketan parte hartu duela adierazi beharko da. Horrez gain, bermatu beharko da kontabilitate-egozketa kontabilitate orokorraren arloan eta merkataritzako legeriaren arloan indarrean dauden araudiekin bat datorrela.

b) Ekintza gauzatu dela, gastuak egon direla eta ordainketak benetan egiten direla egiaztatzeke dokumentazio moduan balio dezaketen jatorrizko agiri kualitatibo eta kuantitatiboak gordeko dituzte, bost urtez, kudeaketa-agintaritzak onuradunari azken ordainketa egiten dion urteko abenduaren 31tik aurrera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren 82.1 artikulua araberak.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako funtsen kontrol-instantziak beharrezkoak diren ikuskaritza- eta kontrol-jarduerak egingo dituzte, deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko, eta bereziki egiaztatuko dute betetzen direla enplegua benetan sortzeko eta kontratuen iraupena ezartzeko eskakizunak.

Horretarako, diruz lagundutako kontratazioei buruzko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du enpresa edo entitate onuradunak, gutxienez 2033ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

15. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan ezer aldatuz gero, gerta liteke emandako dirulaguntza ere aldatzea; nolahi ere, eutsi egingo zaie deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan jasotakoei. Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura abiatuko da.

16. artikulua.– Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak dira administrazio honek edo beste administrazio edo entitate publiko edo pribatuak kontzeptu eta helburu berberetarako emandako dirulaguntza, laguntza eta diru-sarrerekin, ez ordea Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan lege ezartzen diren hobariekin edo kuota-murrizketekin.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta emandako dirulaguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetako dirulaguntzen entitate onuradunek ez badituzte betetzen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarri

zaizkien betebeharrak, edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak, dagokion ebazpenaren bidez, erabakiko du jaso gabe dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala badagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari jasotako kopuruak itzuli behar zaizkiola, bai eta dirulaguntza ordaindu zenetik hura itzuli behar dela erabakitzen den egunera bitarte edo zordunak itzulketa egiten duen arte – itzulketa egin behar duela erabaki aurretik egiten badu– dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, egokiak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, bat etorritz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta, erantzukizunei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 46. artikuluan zehaztutako araubideari jarraituko zaio.

2.– Diruz lagundutako lan-kontratuak 10.1 artikuluan ezarritako aldia baino lehenago azkentzen badira, artikulua horretan aurreikusi ez den beste arrazoiren batengatik, kontratazioa dela-eta emandako dirulaguntza osorik itzuli beharko da, dagokion prozedura izapidetuta. Era berean, egindako ordainketak 10.2 artikuluan ezarritako kalkulu proportzionala baino handiagoak badira, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, kontratazioagatiko azken dirulaguntza kontratatutako pertsonak lan egindako aldiaren zati proportzionalera egokitzeko.

3.– Dirulaguntzak itzultzeko prozedurak bat etorri beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin eta hura garatzeko araudiarekin.

Aurreko apartatuan aipatutako ez-betetzerean bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak entitate interesdunari jakinaraziko dio itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzen. Prozedura hasten denean, eten egingo dira artean egin gabe dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

4.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan, halakorik aurkeztu ez bada edo ez badira onartu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak ebazpena emango du. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hileko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritzi gero, eta dirulaguntza osorik edo haren zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko gehieneko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

6.– Borondatezko epe horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza berreskuratzeko premiamendu bidera jotzeko izapideei ekingo zaie.

18. artikulua.– Datu-babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Biltzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta tratamenduaren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurraren aurka egitea eta datuak estatistiketa-

rako erabiltzea ere. Biltzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori [www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/) helbidean argitaratu da.

Hemen kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

19. artikulua.– Eskumenari buruzko Europako araudia.

1.– Deialdi honetan zehaztutako dirulaguntzek bat etorri beharko dute «de minimis» laguntzei buruzko arauarekin, zeina erregelamendu honetan ezartzen baita: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 107. eta 108. artikulua «de minimis» laguntzei aplikatzeari buruz Batzordeak 2023ko abenduaren 13an onartutako (EB) 2023/2831 Erregelamendua. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati «de minimis» laguntzetan ezin zaizkio guztira 300.000 euro baino gehiago eman hiru urteko edozein alditan. Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» erregelamendu horretako 2.2 artikuluan.

2.– Laguntza eskatzen duenak aurreko hiru urteetan jasotako «de minimis» laguntzei buruzko aitortpena egin beharko du, ziurtatzeko «de minimis» laguntza berriak ez duela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.

20. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Dirulaguntza-programa honi Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren oinarritzko araudian eta lege hori garatzen duen erregelamenduan bildutakoa aplikatu behar zaio (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Laguntzek Europako Plus Gizarte Funtzaren kofinantzaketa dutenez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren mende ere egongo dira. Hain zuzen ere, erregelamendu horren bitartez ezartzen dira Eskualde Garapeneko Europako Funtzari, Europako Plus Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Bidezko Trantsizio Funtzari eta Itsasoko, Arrantzako eta Akuikulturako Europako Funtzari buruzko xedapen komunak, bai eta funts horietarako finantza-arauak eta Asilo, Migrazio eta Integraziorako Funtserako, Barne Segurtasuneko Funtserako eta Mugak eta Bisen Politika Kudeatzeko Laguntza Finantzariorako Tresnarako finantza-arauak ere. Era berean, laguntza hauek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko (EB) 2021/1057 Erregelamenduaren mende ere badaude (erregelamendu horren bitartez ezartzen da Europako Plus Gizarte Funtza (EGF+) eta indargabezen da 1296/2013 (EB) Erregelamendua).